

Musika

Kafea eta galletak

Musika? Hutsa, mesedez

Lotsa apur bat ematen du ezezagun batzuen aldamenean jesarri eta beste barik, disko bat entzuten hasteak. Beharbada ezohikoa delako; zinearekin gauza bera egiteko eskarmentua dugu, baina musikarekin... Eskerrak kafea ematen duten, bestela, zertan erabili eskuak?

UNAI BREA

LEIRE LOPEZ ibarrangeluarrak (Bizkaia) bat-batean egindako kalkulu baten arabera, tabernetan sortzen diren ideien %5 besterik ez dira ekintza bilakatzen. Hain justu, kupo estu horretan sartu den ideia baten sortzaileetakoa da Lopez, kalkulu bitxi egilea ez ezik. Berari eta Gernikako Gazte Asanbladako beste kide biri zor zaie *Kafea eta galletak* ekimena abian jartzea.

Musika entzuteko eta musikaz hitz egiteko tartea, horixe besterik ez da *Kafea eta galletak*. Zine-klubak bezala, baina disko batekin. Asmoa aspalditik zebilkien gogoan, eta akaso, tabernetako barra ondoan zeudela, hizpide bihurtzen zitzairen maiz, baina iaz arte ez zuten gauzatzeko adorerik batu. AMM (Auskal Muturreko Musika) jardunaldietan egindako eztabaida bat izan zen behar zuten txinparta. “Behin, kontzertu batean, musikari esperimental batek *play* botoia sakatu eta eszenatik ospa egin zuen”, dio Lopezek, “eta horretaz egin genuen eztabaida: ea hori kontzertua zen ala ez”. Hark pentsarazi egin zien, eta aspaldiko asmoak indar berriz itzuli ziren. “Zuzeneko gustuko dugu, baina kontzertuetan, askotan, musika ez diren beste gauza batzuegana joaten da arreta”. Ikuskizunak entzunkizunak baino garrantzi handiagoa hartzen duela, alegia. Protagonismo guztia musikari emango zion zerbait antolatu beharra zegoen.

Gernikako Gaztetxean gela egokia atondu zuten, eta aurrera. Kontua erraza da: hileroko lehenengo zapatuan elkartu, arratsaldeko bostetan. Ordu horri dagokion legez, kafea banatu eta aukeratutako diskoa ipini. Galletak ere badaude noski: jatekoak batetik, diskoa bera bestetik. Eta entzun ondoren, hartaz hitz egitea tokatzen da. Leirek lasaitu egin gaitu: ez da sona handiko aditua izan behar, ezta sona txikikoa ere.



Hau argitaratu orduko hirugarren sesioa egitear egon behar lukete, ondo bidean. Lehenbikoak, azaroaren 1ean, hamasei entzule bildu zituen, hasieran lotsatu samar, kroniken arabera. “Ez dut uste disko bat entzutera askoz jende gehiago etorriko denik –iritzi dio Lopezek–, hau nahiko *freaky* da”. Ezohikoa, baina ez guztiz berria: 70eko eta 80ko hamarkadetan halakoak egiten omen ziren.

Lehen emanaldirako hautatu zuten diskoa ez da askoz geroagokoa: Slint taldearen *Spiderland* (1991). Post-rock. Entzuleetako asko umeak ziren artean. Hala ere, ohartzarazi dute, *Kafea eta galletak* ez da iragan-mina gozatzeko ariketa izango. Estilo eta garai guztiak onartuko dituzte, baldintza bakar batekin: diskoek bost urte izan behar dute gutxienez, “denboraren higidura gainditu duten seinale”, Lopezek *dixit*. Emanaldi bakoitzean pertsona edo talde batek proposatzen du zer disko entzun. Ordainean, haren gaineko testu laburra idazteko eskatzen zaio, joaten direnei banatzeko. Ez dadila inor biluzik joan entzunaldira.

Hasierako planteamendua sano bakuna zela esan dugu, baina bigarren sesioa egin orduko –Neil Young-en *Tonight's the night* entzun zuten– urrats bat harago eginda zeuden. Estreinakoan, estreinakoa izateagatik, kontzertua antolatu zuten Xabier Montoiarekin; hain izan zen arrakastatsua, entzunaldi guztien ostean egitea erabaki baitzuten. Eta gainera, kontzertuak nolabaiteko lotura eduki behar du aurrez entzundako diskoarekin. Hori zelan lortuko duten hilabeterik hilabete jakingo da. Bertara joatea onena. Argibide gehiago nahi duenak, bila dezala hemen: www.blogari.net/kafea. ■